Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Rufino Garai Azkarai Mili

Gernika-Lumo, Bizkaia (1904)

Aurkibidea

Biografia

Lumoko Larrondo baserrian jaioa. Lumoko aurreskularia izandakoa. Grabazioa egin zenean 89 urte zituen.

Zintak

GER-016

- **Proiektua**: Lumoko historia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zarrabeitia, Alberto
- **Data**: 1994-01-01
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Lumoko meza osteko aurreskua

- **Erref**: GER-016/002
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:01:08. **Bukatu**: 00:04:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
San Pedro eguna Lumon. Meza ostean aurreskua egiten zen. Aurreskuaren inguruko azalpenak. Doinuak abesten ditu. "Erregela zaharrak"; leku gutxitan dantza egiten ei ziren.

2. Santa Apolonia jaia Lumon

- **Erref**: GER-016/003
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:04:28. **Bukatu**: 00:05:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:
Santa Apolonia egunean ere aurreskua egiten zen Lumon eta San Pedroetako antzeko jaia izaten zen. Mutilek zahagia ipintzen zuten eta ardoa nahikoa egoten zen.

3. Rufinoren aurreskuaren arrakasta Ibarrangelun

- **Erref**: GER-016/004
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:05:55. **Bukatu**: 00:08:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Jaietan Udaleko kideak banku batean eserita egoten ziren, kanpoan. Behin Ibarrangelura joan ziren. Ezagun batek hango alkateari esan zion aurreskulari on bat etorri zela, eta aurreskua egiteko eskatu zioten Rufinori. Alkateak hamaiketakoa ordaindu zien tabernan. Gero, berriz dantza egiteko eskatu zion eta, horren ostean, bazkaria, afaria eta nahi zuten guztia eskaini zien.

4. San Rokeetan aurreskua egitera; German txistularia

- **Erref**: GER-016/005
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:08:10. **Bukatu**: 00:10:32

- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Inauterietan ez zen egiten aurreskurik, baina San Rokeetan bai. Andra Mari elizara joan izan zen askotan aurreskua egitera. Dirua eta bazkaria ematen zizkioten. Txistularia German izaten zen gerra aurretik; gero kendu egin zuten gerra sasoian, nazionalista zelako. Udalak ordaintzen zien txistulariei.

5. San Juanetan belarra lapurtzen gauez

- **Erref**: GER-016/018
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:22:37. **Bukatu**: 00:23:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
San Juanetan lehortea egoten zen normalean. Mutil gazteek gauez belarra zegoen lekura joan eta handik belarra lapurtzen zuten.

6. Garai bateko ezkontzak; arreoa gurdian

- **Erref**: GER-016/020
- **Iraupena**: 0:03:43. **Hasi**: 00:24:28. **Bukatu**: 00:28:11
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Garai bateko ezkontzak. Elizara oinez joaten ziren senargaiak eta euren senide bana edo, testigu gisa. Arreoa gurdian eramaten zen. Alboan emakumezko batzuk joaten ziren buru gainean otzarak zituztela; otzaretan gauza txikiak eramaten zituzten. Bazkari edo afariak egin, bolanderak bota eta dantzan eginez ospatzen zituzten ezkontzak.

7. Garai bateko hiletak

- **Erref**: GER-016/022
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:28:19. **Bukatu**: 00:29:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Hiletak. Hildakoa andariek eramaten zuten lepoan. Nola joaten ziren: abadearen aurretik andre bi joaten ziren zestotxo batzuekin; andariak abadearen atzetik.

8. Lumoko andabidea; lurperatu ostean elizkizuna

- **Erref**: GER-016/024
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:29:29. **Bukatu**: 00:31:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Andabidea nondik nora zegoen. Lumora iritsitakoan, lehenengo elizpean kanta batzuk abesten zituzten, hil-kutxa mahai gainean utzita. Gero andariek hilerrira eramaten zuten eta lurperatu egiten zen. Ondoren, eliza barruan elizkizuna egiten zen.

9. Hileten inguruko ohiturak Lumon

- **Erref**: GER-016/026
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:31:29. **Bukatu**: 00:34:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Euren senideen hileten inguruko azalpenak. Lumoko ohiturak. Norbait hildakoan, "tokada" egoten zen eta, bestelako abisurik ez bazegoen, auzoko guztiak joaten ziren hiletara. Lau mutil (andariak) eta auzoko lau neska eta sukaldaria eramaten ziren. Zenbat jateko eramaten zuten: bost arroa bakailao, ogi bana denentzat, bi zahagi ardo... 10 abade elizan. Izugarrizko gastua izaten zen etxekoentzat. Askok mozkortuta amaitzen zuten eguna.

10. Bulda ordainduz gero, haragia jateko baimena

- **Erref**: GER-016/028
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:37:05. **Bukatu**: 00:38:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Garizuman bijilia egin behar. Lehengo jendea gaur egungoa baino tontoagoa zela dio, izan ere, abadeari bulda ordainduz gero, haragia jan zitekeen bai bariku santu egunean eta bai beste edozein egunetan ere. Dirua batzeko tranpa bat zela dio.

11. Abadeak publikoki esaten zuen zenbat ogerlekoko meza ateratzen zuten

- **Erref**: GER-016/033
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:43:05. **Bukatu**: 00:44:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:
Garai batean, jendeak mezak ateratzen zituenean, batzuek sei ogerlekoko meza ateratzen zuten, beste batzuek bederatzikoa, hamalaukoa... Abadeak, meza-paperak hartuta, jendearen aurrean esaten zuen bakoitzak zenbateko meza atera zuen.

12. Santa Ageda koplak neska gazteei

- **Erref**: GER-016/041
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:49:52. **Bukatu**: 00:50:42
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Santa Agedetan etxerik etxe kantuan joaten zirenean, etxeko neska gazteei botatzen zitzaizkien koplak.

13. Errogatiben inguruko azalpenak

- **Erref**: GER-016/046
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:53:06. **Bukatu**: 00:54:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Errogatibak egiten ziren garai batean, Asentzio bezperan, hiru egunez jarraian. Lumon hasi eta Santa Luziara. Auzoko batek garrafoi bete pattarra eta ogi pila bat eramaten zuen hara, errogatibak eginez zetozenentzat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-11

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com